

Ostirala

2017ko urtarrilaren 6a
VIII. urtea
287. zenbakia

www.nafarroa.hitza.eus
nafarroa@hitza.eus

4 Euskara lpuinak idatzi ditu Aitor Aranak Izarbeibarko euskalkian; XX. mende hasieran galdu zen

5 Esa Urtegia handitzeko lanen aurka indarrak batzeko plataforma osatu dute herritarrek

NAFARROAKO HITZA



**Tarteko
helmuga,
Tutera**

Akordiorako oinarria onetsi dute Erriberako Hondakinen Mankomunitateak eta GHK-k Gipuzkoako errefusaren zati bat Tuteran tratatzeko • Herritarrek plataforma osatu dute egitasmo horren aurka • 2-3



Tuterako El Culebrete zabortegia. Erriberako eta bertze hainbat eskualdetako hondakinak hartzen ditu egun. JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

Akordiorako oinarria onetsi dute Erriberako Hondakinen Mankomunitateak eta GHK Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak, herrialde horretako errefusaren zati bat El Culebrete tratamendu zentroan hartzeko. Plataforma bat osatu dute Erriberan, egitasmo horren aurka eta ekonomia zirkularraren alde.

Ez dute zirkulua lerro zuzen bilakatzea nahi

Eduarne Elizondo Iruñea

Datozen hamar urteetarako plana onartu berri du Nafarroako Gobernuak hondakinak kudeatzeko, eta testu horretan, hain justu, eredu aldaketaren beharra eta ekonomia zirkularraren aldeko apustua nabarmendu ditu administrazioak. Erriberan, ordea, egitasmo horien aurka egiten duen erabakia hartu dutela salatu dute plataforma osatu berri duten herri-tarrek eta eragileek: akordiorako oinarria onetsi dute Erriberako Hondakinen Mankomunitateak eta GHK Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak, azken herrialde horretako errefusaren zati bat Tuterako El Culebrete tratamendu zentroan hartzeko.

«Erabaki horrek kolokan jartzten du gobernuak onartutako hondakinen plan osoa», salatu du Sustrai Erakuntza fundazioko Martin Zelaiak. Zehazkiago, erran du beldur dela plan hori mamirik gabeko azala ote den. «Kontseilariak berak esan du hondakinen kudeaketan eredu aldaketa bat behar dugula, baina Tuteran egin nahi dutenak ez du asmo horrekin bat egiten. Ez da urrats bat aurrera, atzera baizik. Larria da».

Azaroan zabaldu zen Erriberako Hondakinen Mankomunitateak eta GHK-k onetsitako akordiorako oinarriaren berri. Zehazki, Erriberako mankomunitateko batzorde iraunkorrek hartu du erabakia. PSNren esku dago mankomunitatearen lehendakaritza, eta batzorde iraunkor horretan ere ordezkari gehienak alderdi sozialistako kideak dira. «11 kide dira, eta PSNren ordezkari dira zazpi. Ezkerrak hiru ditu, eta UPNk bakarra», azaldu du Erriberako Hondakinen Mankomunitateko presidenteorde Olga Riusueñok. Ekologistak Martxan taldeko kide izan da Erriberan, eta Ezkerrako zinegotzia da, orain, Tuterako Udalean.

Erriberako eta Gipuzkoako erakundearen artean adostutakoaren arabera, Gipuzkoako errefusaren zati bat ekarriko dute Nafarroara: urtean, gehienez, 70.000 tona hondakin, hain zuzen ere. Akordioa hiru urterako litzateke, laugarren urtez luzatzeko aukerarekin. Erriberako Hondakinen Mankomunitateak, trukean, bost milioi euro inguru jasoko lituzke. Asmoa da Gipuzkoako errefusa tratatzea El Culebrete zentroan, baina horko zabortegian lurperatu gabe. Erriberatik, beraz, bertze

zabortege batera eramanez lituzkete hondakinak, El Culebreten bereizi eta tratatu ondoren.

Adostutakoaren inguruan dituen zalantzak jarri ditu mahai gainean Sustrai Erakuntza fundazioak. Batetik, ekonomia zirkularraren aurka egiten duelako, eta birziklatzea ez duelako lehenesten; bertetik, Gipuzkoatik Erriberara eramateko 200 kilometro baino gehiagoko bidea egin beharko dutelako hondakinak. «Horrek Erriberan egun dauden kutsadura arazoak areagotu besterik ez ditu egingen», erran du Zelaiak. Hirugarrenik, fundazio-kideek ez dute argi hondakinen azken helmuga zein izan den. «El Culebreten lurperatzeko arriskua bada, beste nonbaitera eramateko dauden zailtasunak kontuan hartuta», erantsi du fundazioko kideak.

Kezka horiekin bat egin dute Erriberako herritar eta eragile anitzek, eta, ondorioz, Gipuzkoako hondakinak Tuteran hartzeko egitasmoaren aurkako plataforma osatu dute. Hainbat herritako hautetsiek, eta zenbait sindikatuk eta talde ekologistak bat egin dute, bertzeak bertze. Elkarretaratzea egin zuten plataformako kideek joan den abenduaren 17an, eta lanean jarraitzeko asmo sendoa agertu dute. Gustavo Gil Perez Nievas da plataformako kideetako bat. Tuterako Udaleko zinegotzia ere bada, Candidatura de Unidad Popular (CUP) taldearekin.

Talde horrek aurkeztutako mozioa onartu zuen Tuterako Udalak, hain zuzen ere, joan den abenduaren 4ko osoko bileran. Onartutako testuaren bidez, GHKren eta Erriberako Hondakinen Mankomunitatearen arteko akordiorako oinarriaren aurka egin du Tuterako Udalak. PSNk ez zuen mozioa babestu, baina UPNren aldeko boza jaso zuen. Ezkerrean, abstentitu egin zen.

Zinegotzi eta plataformako kide gisa, Gil Perez Nievas argi du Erriberako mankomunitateak bertan behera utzi beharko lukela Gipuzkoako hondakinak Nafarroara ekartzeko egitasmoa. Hainbat auzi jarri ditu mahai gainean. Batetik, akordiorako oinarria batzorde iraunkorrek onartu izana salatzen du. «Mankomunitateak berak erratan du erakunde horren organo nagusia batzar nagusia dela». Bertetik, zinegotziak gogoratu du mankomunitateak ez dituela zuzenean kudeatzen Erriberako hondakinak; FCC enpresak du ardura hori bere gain. «Jasotako zaborraren arabera kobratzen du; ondorioz, gero



Elkarretaratzea egin zuten abenduaren 17an, Tuteran, Gipuzkoako hondakinak hiri horretan hartzeko egitasmoaren aurka. Plataforma osatu dute. NAFARROAKO HITZA

eta hondakin gehiago hartzea interesatzen zaio». Kezka horrekin bat egin dute Sustrai Erakuntza fundazioko kideek, eta hondakinen kudeaketa enpresa pribatuen esku dagoenean negozioa gailentzen dela nabarmendu du Zelaiak.

Egoera horri aurre egiteko beharra aipatu du Gil Perez Nievas, hain zuzen ere, eta Erriberan sortu berri duten plataformak aukera bat proposatu du: «Birziklatutako tona bakoitzeko ordaintzea».

Gobernuaren jarrera

Hondakinen kudeaketan Gipuzkoak atzera egin duela argi du Zelaiak. «Ekonomia zirkularraren eta birziklatzearen aldeko apustua bazter utzi dute, eta hondakinak errausteko urratsa babestu dute». Erriberan egin nahi dutenaren atzean «eredu bera» dagoela argi du Sustrai Erakuntza fundazioko kideak. «Teknika da ezberdina; han errausten dutena hemen lurperatu nahi dute, baina eredu bera da. Eta eredu hori da aldatu behar dena».

Nafarroako Gobernuak Ingarumen, Landa Garapen eta Toki Administrazio kontseilari Isabel Elizalde berak bat egin zuen asmo horrekin, hondakinak kudeatzeko plana aurkeztu zenean. Alegia, eredu aldatzeko beharra nabarmendu zuen. Aldi berean, ordea, Gipuzkoako hondakinak El Culebreten hartzeko proiektuari oniritzia eman dio departamentu horrek. Behin betiko baimenaren zain da Erriberako mankomunitatea oraindik ere, halere, baimen hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean agertzeko zain.

Gobernuak gogoratu du Nafarroatik kanpoko hondakinak tratatzeko akordioaren inguruko ardura ez dela berea, mankomuni-

tateena baizik. «Nik uste dut gobernuak ez zuela Erriberan egin dutenaren gisako akordiorik nahi, baina ez du ezetz esan. Pentsatzekoa da harremanen bat izan zela Gipuzkoako EAJren eta Geroa Bairen artean», erran du Zelaiak. Erriberako plataformako kideek ere «susmopean» jarri dute Nafarroako Gobernuaren jarrera, eta Geroa Bairen eta Gipuzkoako EAJren arteko harremana ikusten dute egindako urratsen atzean. «Gobernua hagitz azkar ari da dena egiten», azaldu du Gil Perez Nievas.

Plataformako kideek, halere, Erriberako Hondakinen Mankomunitateak duen ardura jarri dute erdigunean. «Mankomunitatea Erriberako hemeretzi herrik osatzen dute; herritarren erakunde bat da, finean».

Ezkerrako zinegotzi eta mankomunitateko presidenteorde Olga Risueñok, hain zuzen, erakunde horren barrutik bizi izan du akordiorako oinarria onesteko prozesua. CUP taldeak mozioa aurkeztu zenean, abstentitu egin ziren Ezkerrako zinegotziak Tuterako Udalean, abenduaren 4ko bileran. Hil horren 7an, ordea, batzarra egin zuten Ezkerrako kideek, eta Gipuzkoako hondakinak Tuterara eramateko asmoaren aurka agertu zen koalizioa. «Ezetzaren oinarria ez da hainbertze adostutako testua, hondakinak kudeatzeko eredu baizik», zehaztu du Risueñok.

Zinegotziak azaldu du Erriberako Hondakinen Mankomunitateko presidente Tomas Agudok maiatzean eman zela auziaren berri. «GHKrekin harremanetan zela azaldu zigan ekaineko batzorde iraunkorren bileran. Irailean, berriz, akordiorako oinarria prest zela erran zigan; adostu zutela mankomunitateak bost milioi euro

inguru jasoko zituela, eta 10-14 lanpostu sortuko zirela, txandak bikoiztuko zituztelako Gipuzkoako hondakinak tratatzeko», zehaztu du. Ezkerrako kideek azaroaren 21ean jaso zuten akordiorako oinarriak jasotzen zituen testua. «Ongi aztertu eta gero, uste dugu egin nahi dena ez dela hondakinak kudeatzeko modurik egokiena; horregatik eman diogu ezezkoa», erantsi du Risueñok.

Argitzeke dago Gipuzkoako hondakinak nora eramanez dituzten Tuterako El Culebreten zentroan tratatu eta gero

La Nafarroa osoko hondakinak hartzen dituzte zabortegeak egun; herrialdeko hondakinen %41, hain zuzen ere

Mankomunitateko presidenteordeak bertze gai bat jarri du mahai gainean: erabakiak batzorde iraunkorrek hartu izana. «Guk argi dugu auziak eskatzen duela batzar nagusiak erabakitzea; mankomunitateko teknikariek erran dute, halere, batzorde iraunkorrek akordiorako oinarria onesteko eskumena duela».

Akordiorako oinarria da egun Gipuzkoak eta Erriberak sinatutakoa. Akordio hori berretsi behar da, ordea, aurrera egiteko. Urratsak egin jarraitzeko, hain zuzen ere, zailtasunak ditu Erriberako Hondakinen Mankomunitateak: Gipuzkoako errefusa El Culebreten hartu eta gero nora eramanez argitzeke dago, oraindik ere.

Arnedon (Espainia) zabortege bat kudeatzen du FCCk, eta harat eramanez izan zen lehen aukera; baina Arnedokoa industriaren hondakinentzako zabortegea da. «Ez du balio», erran du Sustrai

Erakuntzako Zelaiak. Aukera hori baztertu eta gero, Aragoiko (Espainia) Ejea de Los Caballerosko zabortegea zen FCCren bigarren aukera. «Hori, ordea, ez dago enpresa horren esku. Publikoa da. Ez da erraza izan baimena lortzea», erantsi du Zelaiak.

Zailtasun horien ondorioz Gipuzkoako hondakinak Tuteran geldituko ote diren beldur dira Sustrai Erakuntzako kideak, bai

eta Erriberan plataformak sortu dutenak ere. Egun, jada, Erriberatik kanpoko hondakinak hartzen dituzte El Culebreten. «Nafarroa osoko hondakinen %41, hain zuzen; Iruñerrikoak eta Lizarraldekoak dira honat etortzen ez diren bakarrak», azal-

du du Gil Perez Nievas. Gogoratu du Gongorako zabortegea 2022an itxiko dutela. Iruñerriko hondakinak hartzen ditu horrek egun.

El Culebreteko datuek, halere, zalantza jartzen dute horko kudeaketa. «Mankomunitateak berak emandako datuen arabera, jasotako hondakinen %1,12 baino ez dute birziklatzen; %47 konpost bilakatzen dute, baina ez du saldu ahal izateko kalitaterik», erran du Gil Perez Nievas. Argi du zentro hori ez dela hondakin gehiago hartzeko toki egokia.

Zailtasun nabarmendu ditu Zelaiak, eta pentsatu nahi du onesteko akordiorako oinarriak bazter uzteko gai izan direla zailtasun horiek. Herritarren erantzuna txalotu du, halaber, Sustrai Erakuntzako kideak, eta auziak haien artean birziklatzeko kontzientzia piztuko duela espero du. Akordioa berresteko bilerara ez du deitu, oraingoan, Erriberako Hondakinen Mankomunitateak.



Hainbat euskalki ikertu ditu Aitor Arana idazleak gaztetatik; besteak beste, bizkaiera, zuberera, zaraitzuera eta Izarbeibarko euskara. JUANAN RUIZ / ARGAZKI PRESS

Aitor Arana idazleak Izarbeibarko euskaran idatzi ditu ipuin batzuk. Hamar urte daramatza galdutako euskalki hori ikertzen, eta orain jauzi egin du literaturara.

Teoria hutsa izan ez dadin

Asier Garcia Uribarri Iruñea

Hiztegia, gramatika eta, orain, literatura. Euskarazko autore klasikoen ordena berari jarraitu die Aitor Aranak Izarbeibarko euskararekin. Hamar urtez ikertu du Aranak XX. mendearen hasieran galdutako euskalkia. Hainbat lan teoriko publikatu eta gero, literaturarako saltoa ematea erabaki du *Izarbeibarko ipuñak* lanarekin. Ibarreko toponimo, atsotitz eta kondairetan oinarrituta, hamar ipuin idatzi ditu. «Koldo Colomo Garesko euskara teknikariak material ugari pasatu zidan ibarreko kontuen inguruan. Irakurri ahala ipuin bat idazteko moduko trama bururazten zitzaidanean aukeratzen nuen gaia», azaldu du Aranak.

Izarbeibarko euskaraz hainbat ikastaro eman ditu Aranak. Horietako batean, euskal mitologiako ipuin batzuk ibarreko euskalkira itzultzeko agindu zien ikasleei. Itzulitako lan horiek Garesko Udalak publikatu zituen 2011n, ibarreko euskaraz idatzitako beste testu klasiko batzuekin batera,

Irakurgaiak Izarbeibarko euskara: Uterga, Ukar eta Garesko testu zaharrak eta berriak izenburupean.

Esperientzia hartatik, Colomo euskara teknikariari eskualdeko euskaraz literatur lan bat argitaratzeko ideia otu, eta Aranari proposatu zion. «Hasieran, *Printze txikia* lan klasikoa itzultzea pentsatu genuen, orain urte batzuk zubererara itzuli baitzuten. Baina ez zen bideragarria, egile eskubideak oso garestiak direlako», azaldu du idazleak. Orduan, Colomok beste aukera bat eskaini zion: eskualdeko kondaira eta siniskerietan oinarritutako ipuinak sortzea.

«Ipuin guztiak asmatu ditut bertako kondaira, sineskeria, mitologia eta toponimian oinarrituta. Izarbeibarrek aukera asko ematen ditu alde horretatik», aitoritu du Aranak. Adibidez, *Izaki misteriotsua* ipuina Obanosko esaera zahar batean oinarritua dago. Horren arabera, urteak egun adina sudur dituen gizon bat ageri da Gabon zahar gauetan. «Mami handia atera ahal zaio esaera horri. Berehala bururatu zitzaidan horrekin istorio bat egin

FITXA



Izenburua. *Izarbeibarko ipuñak*.

Egilea. Aitor Arana.

Argitaletxea. Erroteta.

Salneurria. 6 euroan.

Orrialde kopurua. 117.

zitekeela, beldurrezkoa, gainera». *Harrisko lamia* ipuina, berriaz, toponimian oinarrituta dago. «Obanosen, Lamiategi deitutako leku bat dago. Gainera, eskualdeko eliza bateko kapitela batean lamina baten irudia badago. Hortik, mitologia ipuin bat otu zitzaidan». Eunateko Andre Mariren eliza ere izan da hainbat ipuinen

iturburua. Eliza berezia baita, arte erromanikoan oinarri oktagonala duen bakarra.

Ipuin guztiak Aranak asmatutakoak badira ere, batzuk aurretik ezagunak diren kondairetatik sortuak dira. «Izarbeibarren, mundu guztiak ezagutzen du Txoria eta Ama Birjinaren kondaira. Nola txori bat joaten zen urtero Garesko zubian zegoen Ama Birjinaren irudiari aurpegia garbitzera. Nik istorio hori txorien ikuspuntutik kontatzea pentsatu dut». Gertakari historikoak ere kontuan izan ditu. Badago, adibidez, *Erreniegako segada* deitzen den kontakizuna; bertan, Aranak kontatzen du nola iruindar eta izarbeibartarrek aurre egin zieten Gaztelako tropei.

Izarbeibarreko herritarrek ipuinetan aipatutako kontu eta leku batzuk ezagutuko dituzte. Hori da liburuak dituen alde erakargarrietako bat, bertakoek kontuak hurbil sentituko dituztela. Hala ere, kanpokoak diren zentzuetatik, Izarbeibar sakonago ezagutzeko modua ematen du.

Era berean, ipuinak bertako artisten marrazkiekin ilustratuta daude. Garesko Udalak liburu

koloreetan publikatzea erabaki du, eta horrek bizitasun handia ematen die marrazkiei. «Margaritiek ipuinak irakurri gabe egin dituzte euren lanak. Gaia baino ez zuten ezagutzen. Izarbeibarko egoera soziolinguistikoa ez da euskararen oso aldekoa. Artistetako asko erdaldunak dira; beraz, ezin genuen itxaron liburua idatzi, itzuli eta ondoren marrazkiak egin zitzaten, prozesua asko luzatuko baitzen».

Euskalkia berrerabiltzen

Luis Luziano Bonaparte printzeak Izarbeibarko euskararen berri eman zuen haren euskalkiei buruzko lanetan. Haren arabera, XIX. mendearen erdialdean oraindik euskaldunak bazeuden eskualdean, baina 40 urtetik gorakoak ziren gehienak. Garesko Udalak borondate handia jarri du azken urteetan euskalkiari buruzko lanak argitaratzeko, eta lan horretarako bide lagun ezin hobea aurkitu du Aranarengan. Baina zentzurik ba al du orain ehun urte desagertutako hizkera bat berreskuratzea? Aranak badu erantzuna: «Helburua ez da euskalkia berreskuratzea, ezta euskara batuari konpetentzia egitea ere. Lan hauek euskara batua elikatzeke asmoa dute, horretarako ere balio baitute euskalkiek, euskarari aniztasun handiagoa emateko».

Gainera, Aranak gogoratu du testuen ulermena errazten duela ibarreko euskara euskara batutik oso gertu egoteak. «Euskara batua ondo egindako estandarra da, erdialdeko hizkerak hartu zituelako oinarri. Askotan esaten da gipuzkeran dagoela oinarritua. Egia da bertatik asko jaso zuela, baina aditz sistema nafarreraren askoz antzekoagoa da. Beraz, Izarbeibarko euskaldunak ez du arrotza ikusiko haren arbasoen hizkera».

Liburuaren aurkezpenean, Oihan Mendo Garesko alkateak aipatu zuen liburu honekin ziklo bat ixten dela, lan teorikoak, testu zaharrak eta literatura berria publikatu ostean. Nolanahi ere, Aranak aitortu du zikloa ez dela erabat itxi. «Otsailean, euskalkiaren beste ikastaro bat egitea proposatu zidan alkateak. Niri ilusio handia egiten dit lan hau egiteak, eta baiezkota eman nion».

Liburu andana saldu zen aurkezpenean bertan, tokiko hizkeren erakartzeko duten gaitasunaren seinale. Aranarena lehen saioa da. Hemendik aurrera, beste batzuen txanda izango da, aurretik egindako lana teoria hutsa izan ez dadin.



Zangozan manifestazioa egin zuten Esa handitzeko lanen aurka, duela astebete. JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

Esako urtegia handitzeko lanen aurka indarrak batzea erabaki dute herritarrek, eta plataforma sendo bat eratzeko urratsa egin dute. Proiektu hori behin betiko baztertzeko eskatu dute Rio Aragon eta Esa+Ez Lanak Gelditu elkarteetako kideek.

Aldarri are ozenagoa urtegiaren aurka

Kattalin Barber Iruñea

Urteak dira Aragoiko (Espainia) Rio Aragon eta Nafarroako Esa+Ez Lanak Gelditu elkarteak lanean ari direla Esako urtegia handitzeko lanak bertan behera uzteko. Tinko aritu dira ha-

sieratik, eta, orain, haien oihartzuna are gehiago zabaldu nahi dute. «Proiektuak kalte egindako guztien» plataforma sortzen ari dira; elkarteekin batera, Zaragozako (Espainia) hainbat mugimenduk, landa eremuko hainbat eragilek, eta Aragoiko Tiermas, Ruesta eta Esco herri desjabetuek parte hartuko dute. «Ahalik eta

pluralena izatea nahi dugu, gizar-tearen bazter guztietara Esaren aurkako aldarri ozena iristeko», adierazi du Miguel Solana Rio Aragon elkarteetako kideak.

Ahots berri bat osatzea da asmoa, ahalmen handiagoa izateko. «Biztanle gutxiko herriak gara, eta, jendeak gure arazoa ulertu arren, ez dugu oihartzun handi-

rik izaten». Otsailean aurkeztu nahi duten plataformaren bidez, «dimentsio globala» eman nahi diote auziari, proiektuaren eraginpean diren guztiak bat eginez.

Zaragozako iruzurra jarri du adibide gisa Solanak: «Iruzur egiten ari dira hiri horrekin. Beti argudio gisa erabili izan da Esa bultzatzeko, baina hango udalak behin baino gehiagotan esan du ez dela beharrezkoa». Proiektuan, 132 hektometro kuboko kontsumoa aipatzen da, baina Zaragozak, egun, horren erdia baino gutxiago kontsumitzen du, urtean. «Ez dago halako azpiegitura erraldoi baten beharrik».

Horrez gain, presatik behera dauden herrien babesera ere jasozen ari dira. «Ez dute haien segurtasuna bermatuta ikusten, eta gauzak beste modu batean egin daitezkeela uste dute».

Joan den astean, Zangozako herritarrek manifestazioa egin zuten Esako urtegia handitzeko lanen aurka

2013ko otsailean gertatu zen lur mugimendu handia Esako eskuineko hegalean. Haren ondorioz, Esako bi urbanizazio hustu behar izan zituzten, eta azkenik, desjabetu. Oraindik ere mugimenduek jarraitzen dutela adierazi dute bi elkarteek. Antonio Casas eta Antonio Aretxabala geologoen hainbat alditan ohartarazi dute Esa handitzeko lanek eragin dezaketen arriskuaz. Magalak ez direla egonkorrak. «Baina Ebroko Ur Konfederazioak ez du kasurik egiten, eta gure segurtasunarekin jokatzeko du», adierazi du Iker Aramendiak, Esa+Ez Lanak Gelditu elkarteetako kideak.

Egoera larria den arren, elkar-teeke itxaropena dute: «Oraindik ez dute obra amaitu, eta bete gabe dago. Esa handitzea lortu gabeko desioa izatea nahi dugu», esan du Solanak.

Larrialdi plana

Esako urtegia handitzeko lanengatik lau urte daramatzate larrialdi plana aktibatuta. Arriskuari dagokionez, lehen maila dago ezarrita gaur egun. Maila horrek onartzen du urtegiaren presan matxurak edo pareta bera haustea eragiten ahal dituzten gertaerak jazo direla, baina neurriak hartuta konpon daitezkeela. Joan den urtean, Sustrai Erakuntza eta Esa+Ez taldeak eta Karmele Irigibel Galipentzuko alkateak salaketa jarri zuten Ebroko Ur Konfederazioaren aurka. Salatzaileen esanetan, konfederazioak ez zuen zuzen zuzentzeko jokatu 2013ko larrialdi

hartan. Izan ere, urtegiaren eskuin hegala irrist egiten hasi zenetik larrialdi plan bat ezarri zen arte hainbat hilabete igaro zirela gogorarazi du Aramendiak. Berriki jaso dute salaketaren erantzuna: Ebroko Ur Konfederazioak dio ez dagokiola berari horretaz jakinaraztea herritarrei.

Kezka nabaria da Zangoza aldean, eta Ebroko Ur Konfederazioak «datuak ezkututzen» dituela salatu du Aramendiak. «Babesgabetasun egoeran gaude; edozein gauza gertatzen baldin bada ezinen diogu aurre egin», adierazi du. Egoera salatzekeo manifestazioa egin zuten Zangozan abenduaren 30ean.

«Informazioz eta gardentasunarekin eza» salatu du zangozarrak. Ebroko Ur Konfederazioa «erne» egon eta arriskuez jakin arren, ez dutela neurririk hartzen. «Pertsonen segurtasuna kolokan dagoenean eztabaidak ez du balio. Lehenetsuna da». Ebroko Ur Konfederazioa «zigorgabetasun

osoarekin eta herritarren diruarekin» jokatzeko ari dela salatu du. Handitze lanek 113 milioi euroko aurrekontua zuten hasieran, eta «ia laukoiztu da aurrekontua» Aramendiaren arabera: «Badirudi proiektu honek ez duela aurrekontu mugarik, eta ez dela ezer justifikatu behar».

Halaber, proiektuaren aurrean alternatibak daudela azaldu du. Besteak beste, Bardeako ubidean presa txikiak egitea eta urtegiak ur maila jaisteak dira aukerak. Izan ere, Esako urtegia handituta ere, Bardeako ubideak ez du edukiera nahikorik eta, hortaz, nekazariak ezinen lukete ura aprobetxatu.

Esako urtegiak ura Aragoiko lurak ureztatzeko erabiltzen da batez ere, baina Nafarroako hainbat hektarea ere ukitzen ditu: 10.000 denera. Esa+Ez elkarteak hainbat alditan batzartu da Nafarroako Gobernuarekin. Hauteskundeak baino lehenago «lan politiko sakona» egin zutela adierazi du Aramendiak, eta hitzarmen bat sinatu zuten. «Egoera aztertzea eta ongi aztertuta egon arte lanak gelditzea eta alternatibak martxan jartzea eskatu genion». Gobernuak horretarako lan taldea sortu du, eta txostena egin du. Elkarteak, ordea, oraindik ez ditu ezagutzen azterlanaren ondorioak. «Txosten horretan jasotako informazioaren zain gaude, baina gobernu bere hitza betetzen ari da, egoera aztertzen; horren ondotik egoera argitzea eta neurriak hartzea espero dugu».

Urte berri berri



HURBILDU ETA LAU
Jon Barberena

Hamabigarren mahats pikorra irentsi, eta urte berriak urte zaharra irentsi du. Sukaldeko dekorazioaren parte zen egutegia zakarrontzira bota, eta irudi berri batek eta zenbaki beltz eta gorri andanak estaliko dute pareta. Hainbertze bizipen utzi dizkigun urtea zokoratu, eta urte berriari iltzatuko ditugu begiak eta nahiak. Ez da helburu berririk faltako 2017an. Arimak pisurik ez duenez, haragiaren gramotan eta kiloetan paratuko dugu arreta. Arimak ez du lekurik gurean. Elizak hustu eta gimnasioak bete zaizkigu azken urte hauetan; gorputza egurtuz eta gurtuz. Gerribueltan soberan dagoen haragiak konfesorako aproposak ez diren

bekatuak baino buruhauste gehiago sorrarazten digute. Gimnasioetako tramankuluak objektu sakratu ditugu, korrika egiteko zintaren soinu errepikakorra mantra belarriendako eta fedea argaltzeko botika miragarrietan edo ahoskatzeko hain zailak diren jarduera berrietan harrapatuko dugu. *Stretching* eta *crossfit* bezalako hitzak ez dira faltako erosi berria dugun agenda ñabarrean. Agenda betez eta potolotuz; gorputza hustuz eta argalduz.

Urte berriarekin batera, mingainak jatekoan ez dauden bertze zapore batzuk milikatu nahi ditu. Turroiaren gozotasunaz edo gintonic-aren garratzasunaz aspertu eta hizkuntza berrietan aurkitu nahi du plazera. Urtarrilak aniz-

Gizaki sozialondako bakarkako kirol neketsu bihurtu da bizitza

tasunera garamatza. Bidaiatu gabe, mugak hautsi eta hizkuntza berriak korapilatuko ditugu mingainean gure curriculumaren hobe beharrez. *Comment allez-vous? I'm fine, thanks.*

Hilabete hotz honetan, erronkak ez dira faltako euskaldunon artean. Norbere muga helmuga bihurtuz. Gero eta gehiago dira buruko argia paratuta arratsez entrenatzen dabiltzanak mendian ehun kilometrotik goiti egiteko, eta Quebrantahuesos proba bortz orduz egiteko asfalto beltzean bizi direnak.

Helburuak eta helmuga urrunak. Urtero paratuagatik, maiz bide erdian galtzen direnak. Ahoa promesez bete arren, geroa betetzeko ahulegiak gara nonbait. Jainkotutako gorputz eredu perfektua lortzeko kirola egitea edo curriculumaren hobekuntza, maiz, bete gabeko helburu bihurtzen zaizkigu. Gizarteak zoriotsu izateko paratu dizkigun langak dira horiek. Gizarteak

errezetatutako eginbeharrak ditxosozko zoriona eskuratzeko. Erdietsi beharreko helburu indibidualak, bakar-bakarrik zapaldu beharreko helmugak. Gizaki sozialondako bakarkako kirol neketsu bihurtu da bizitza.

Horren narzisistak izan gabe, urte berriari taldean eskuratu beharreko desioen bat eska diezaiokegu. Gutitan aditzen ditut konpromiso sozialak dauzkaten nahiak jendearen solasetan. Adibidez, mintzalagun izan gaitezke gure herri edo auzoan; koope-rante edo misiolari hegazkinik hartu gabe inguru hurbilean; edo euskaraz mintzo den egunkari bakarra, BERRIA, eros eta lagun dezakegu.

PD: Helmuga sozialak norbanakoaren helmugak direla idatzi dudalarik, mutiko gazte bat billabesatik jaitsi da, sakelakoa piztu, aurikularrak belarrietan paratu eta inguruko errealitateari eta estimuluei bizkarra eman die.

Urte berri on.

Irudia • Iruñea



5.700 korrikalari San Silvestren

Korrika agurtu zuten 2016. urtea 5.700 pertsonak, Iruñean: Beste Iruña taldeak antolatutako San Silvestre lasterketan parte hartu zuten 4.500 helduk eta 1.200 umek. Emakumezkoen artean, Maitane Melero nagusitu zen; gizonezkoen artean, berriz, Antonio Etxeberria izan zen lehendabizikoa. 5,5 kilometroko ibilbidean, halere, besta giroa izan zen protagonista Iruñeko erdigunean. Parte hartzaile anitzek mozorroa jantzita egin zuten korrika. Ongi pasatzea izan zen gehienek helburu nagusia. INIGO URIZ / ARGAZKI PRESS

922

NAFARROAN 2015EAN EGINDAKO ABORTUAK

922 emakumek eten zuten haurdunaldia 2015. urtean; hau da, 2014an baino 21 gehiagok. 15 eta 44 urte bitarteko mila emakumetatik zortzik abortatu zuten. Espainiako Gobernuak eman berri ditu datuak.

25 pertsona hil dira 2016an herrialdean izandako 4.500 auto istripuetan

IRUÑEA • Nafarroan 2016an gertatutako 4.541 istripuen ondorioz, 25 pertsona hil dira. 2015. urteko datu bera da, Nafarroako Gobernuak jakinarazi duenez. Hildako pertsonen kopuruak gora egin du, hala eta guztiz ere, motor gidarien artean: 2015ean bat izan zen, eta 2016an, berri, sei izan dira.



«Orain arte egindako urratsek eta hartutako konpromisoek aukera ematen digute Nafarroan etorkizunari konfiantzarekin aurre egiteko»

Uxue Barkos
Nafarroako Gobernuko presidentea

Etxeko arreta zerbitzuaren kudeaketa bere esku hartu du udalak, berriz ere

IRUÑEA • Iruñeko Udalak zuzenean kudeatuko du etxeko arreta zerbitzua, otsailtik aurrera. Zerbitzu horren ardura bere gain berriz hartzeko erabakiari babesema eman zion udal batzak, duela astebeteko saioan. Aurten, hain zuzen, 1.139 pertsona artatu dituzte.



Nafarroako Hitza irakurleen eskutitzak plazaratzen ditu. Ez dituzte 1.400 karaktere baino gehiago izan behar, tarreak barne, eta **Nafarroako Hitza** mozteko eskubidea du. Helbide honetara bidali behar dira, izen-abizenak eta herria adierazita: Iratxe monasterioa, 45, eskuineko eskailera, 13. eskuina. Eskutitzak Internet bidez bidaltzeko: nafarroa@hitza.eus

MUSIKA

ALTSASU Nafarroako III. Trikiti Jaialdia.

● *Bihar, 17:30etan, Iortia kultur etxean.*

ATARRABIA Klandestinos jaialdia: Bolbora, Ezin Balea eta Los Lucians.

● *Bihar, Totem aretoan.*

BURLATA San Blas abesbatza.

● *Gaur, 12:00etan, Asuncion elizan.*

EGUESIBAR Schola Gregoriana Gaudeamus.

● *Bihar, 19:30etan, Gorraizko San Esteban elizan.*

IRUÑEA Los Zopilotes Txirriak eta Lagunak.

● *Gaur, 21:00etan, Zentral aretoan.*

IRUÑEA Wojtyła.

● *Gaur, 21:00etan, Infernu tabernan.*

IRUÑEA Cristina Ramos.

● *Bihar, 20:00etan, Baluarte auditoriumean.*

IRUÑEA Urte berriko kontzertua: Strauss Festival Orchestra eta Strauss Festival Ballet Ensemble.

● *Igandean, 19:00etan, Gaiarre antzokian.*

IRUÑEA Carlos Sadness.

● *Ostegunean, 22:00etan, Zentral aretoan.*

LEITZA Jeiki abesbatza.

● *Gaur, 11:00etan, parrokian.*

LIZARRA Puntos de Fuga.

Alberto Rodriguezen emanaldia.
● *Bihar, 12:00etan, Gustavo Maeztu museoan.*

ANTZERKIA

IRUÑEA *Meciendo héroes*,

Ion Barbarinek zuzenduta.
● *Gaur eta bihar, 10:30etan, Nafarroako Antzerki Eskolan.*

IRUÑEA Bakarrizketak, Yolanda Ramos eta Maribel Salasekin.

● *Bihar, 20:30etan, Zentral aretoan.*

LIZARRA *Aúpa y Olé*. Bakarrizketak, Jon Plazaola eta Gorka Aginagalderekin.

● *Bihar, 20:00etan, Los Llanos zinema aretoan.*

ZINEMA

IRUÑEA *Zazie dans le métro*, Louis Malleren filma.

● *Astelehenean, 19:30etan, Nafar Ateneoan.*

Gure proposamena ● Iruñea



Amaiurko gaztelua ezagutzeko azken egunak

Oraindik ikusi ez duenak hilaren 15a bitarte izanen du Amaiurko gazteluari buruzko erakusketa monografikoa ezagutzeko aukera. Iruñeko Kondestablearen jauregian da, joan den urritik. Hamar urteko indusketa lanen ondoren, erakusgai jarri dituzte Aranzadi zientzia elkarteak boluntarioekin batera egindako aurkikuntzak. Amaiurko monolitoaren historia, bertako gazteluak inspiratutako artelanak, eta gazteluari eta hango gertakariei buruz idatzitakoa ere jaso ditu erakusketak. IÑIGO URIZ / ARGAZKI PRESS

IRUÑEA *El gabinete del doctor Caligari* filma.

● *Asteazkenean, 20:00etan, Nafarroako filmotekan. Sarrerak 3 euro balio du.*

TAFALLA *Villaviciosa de al lado* filma.

● *Gaur, 18:00etan eta 20:00etan, eta bihar, 20:00etan eta 22:30etan, kulturgunean.*

TAFALLA *Vaiana* filma.

● *Bihar eta etzi, 17:00etan, kulturgunean. Sarrerak 3,50 euro balio du.*

ERAKUSKETAK

IRUÑEA Xabier Ansoren argazki erakusketa.

● *Zabalguneko Civioxen, igandera bitarte.*

IRUÑEA 1936ko gerrari buruzko Nafarroako Artxibo Nagusiko agirien erakusketa.

● *Nafarroako Artxibo Nagusian, igandera bitarte.*

IRUÑEA *Human Bodies, The Exhibition* erakusketa.

● *Baluarten, igandera bitarte.*

IRUÑEA Itxaso Razquin artistaren *Brotos* izenburuko pintura erakusketa.

● *Ziudadelako Bolborategian, hilaren 22a bitarte.*

IRUÑEA Carlos Lopez artistaren *Paisaje y materia* izenburuko erakusketa.

● *Ziudadelako Mistoan Aretoan, hilaren 22a bitarte.*

IRUÑEA Vicky Mendizen erakusketa.

● *Nafarroako Museoan, hilaren 29a bitarte.*

IRUÑEA *Reflexión / Inflexión* erakusketa, emakumeek Nafarroako Museoan duten tokiaz. Asun Goinkoetxea, Dora Salazar eta Angela Morenorekin, bertzeak bertze.

● *Nafarroako Museoan, otsailaren 5a bitarte.*

BERTZELAKOAK

IRUÑEA Carmen Baroja Nessiri buruzko hitzaldia, Carmen Caro Jauregiak eta Amparo Hurtadorekin.

● *Ostegunean, 19:00etan, Civican aretoan.*

Nafarroako
Gobernua  Gobierno
de Navarra



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)
diruz lagundua



JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

«Euskal kultura biziberritzeko ahalegina egin behar dugu»

Aingeru Epaltza • Idazlea

Nafarroako Ikastolen Elkartearen saria jaso du Aingeru Epaltzak, euskararen eta ikastolen alde egindako lanarengatik. Euskarari eta gobernuak hartutako erabakiei buruz aritu da idazlea.

Kattalin Barber Iruñea

1996 eta 2001 artean Nafarroako Ikastolen Elkartearen lehendakaria izan zen Aingeru Epaltza (Iruñea, 1960), eta haren jarduna saritu nahi izan du NIEk. Idazlea, itzul-tzailea eta hainbat komunikabidetako kolaboratzailea da iruindarra.

Nafarroako ikastolen errealitatea asko aldatu da lehendakaria izan zinetik, ezta?

Testuinguru politiko eta soziala ikaragarri aldatu da; ikastolak ez dakit hainbeste aldatu diren. Ni sartu nintzen garaian, Nafarroako Gobernuarekin harreman urruna baina normala genuen, eta berehala pasatu ginen harreman txarra izatera. Garai horretako testuinguru politikoak eragin handia zuen ikastoletan, eta barne tirabirak sortzen zituen. Gaur egun, hori ez da gertatzen, eta gobernu hurbilago dugu, nahiz eta gobernu sostengatzen duten indar politikoaren artean batzuek ez duten ikastolen ere-

dua begi onez ikusten edo ez duten oso ongi ulertzen. Horrez gain, batzuek uste dute ikastolek bete dutela beren zikloa, eta horrek arazo batzuk ekartzen dizkie ikastolei.

D eredua Nafarroa osora zabalteak ere eragina izanen du ikastoletan?

Geroak erran beharko du zer gertatzen den horrekin. Batez ere eremu ez-euskaldunetan dauden ikastolei eraginen die neurriak.

Gobernuak urratsak egin ditu euskararen inguruan. Nahikoak direla uste duzu?

Bada jendea esaten duena gauza guti aldatu direla; nik uste dut gauza franko aldatu direla. Kontua da oso testuinguru jakinean iritsi garena egoera honetara. Euskara ez da lehentasuna gobernu-talde batzuentzat. Hasieratik, oso garbi zegoen gobernu honen lehentasuna ez zela euskara izan. Agenda soziala lehen mailan egon da, eta euskararekin ez dago adostasunik. UPNk utzi digun herentziak zerikusia du

honetan. Boterean egon den denboran lortu du euskara erabat arrotz bilakatzea Nafarroaren zati handi batean.

Euskararen lege berria eskatzen du euskalgintzak. Zein da zure iritzia?

Oraingo testuinguruan, nik behintzat neure buruari galdetzen diot ea benetan merezi duen indarrak xahutzea euskara ofi-

«Agenda soziala lehen mailan egon da, eta euskararekin ez dago adostasunik; UPNren herentziak zerikusia du»

ziala izan dadin Monteagudon, adibidez. UPN, PP eta PSN alderdiak nola dauden ikusita eta Ahal Dugu-k eta Ezker Batuak gai honekin duten hoztasuna ikusita, merezi du horrelako eztabaida sozialak? Nik uste dut gobernu honek lehendabizi pedagogia lan handia egin behar duela gizartean, eta etorkizun hurbil batean nahiko nuke ofizialtasuna posible izan dadila Nafarroa osoan.

Baina momentu honetan ez litza-teke ezta onerako izanen ere.

Neurriak har daitezke legea aldatu gabe?

Legea aldatzea hain zaila bada, gutxienez dekretuak behar ditugu, baina egin ditzagun azkar. Bada sententzia, eta nik ere sententzia dut, denbora azkarregi pasatzen ari dela eta araudiari oraindik ez zaiola eskurik sartu.

Gauza batzuk egiten ari dira, baina aldaketa mantso doa. Hartu behar dira erabakiak. Eskatu-nioke gobernuari erabaki batzuk lehenbailehen har ditzala, gobernu berriak sorrarazi zituen itxaropenak hutsean gelditu ez daitez.

Zeintzuk dira erabaki horiek?

Nafarroako Gobernuak euskararen barne erabilerari buruzko erabakiak hartu behar ditu. Orain bide seinaleak jarri dituzte euskaraz, baina ez Nafarroako Gobernuak horren inguruan araudi bat atera duelako. Momentu honetan herritarrak

governura jotzen badu, oraindik ere zailtasunak izanen ditu euskaraz hitz egiteko. Alor horri ekin behar zaio.

Lehentasuna izan behar du gobernuarentzat?

Nafarroan euskaldunok arazo bat izan ohi dugu. Gure artean aritzen gara, eta askotan ez ditugu begiak behar bezain luze erdaldunak eta beste errealitate batzuk ere badi-rela antzemateko. Gustatuko litzaidake jakitea erdaldunen artean nola hartzen duten UPN, PSN, PP eta *Diario De Navarra*-ren kontraktotasuna. Benetan iruditzen zaie egiazki ari zaizkiela? Askotan, guk ere jokaten dugu erdaldunik ez balego bezala. Esan nahi dut: erdaldunen oniritzia behar dugu, eta horrek esan nahi du guk konbentzitu behar ditugula. Euskaltzaleen artean oso ongi ulertu ez den kontu bat da. Eta gure kalterako, noski. Adibidez, euskararen legea aldatu nahi badugu, ez da izanen guk merezi dugulako, eta beharbada merezi dugu eta beharrezkoa dugu, baina ezin izanen dugu inoiz hori inposatu erdaldunen iritzia gaitetik. Gehiengo dira.

Euskal zinema badago, baina batez ere erdal zinema. Euskal kazetaritza badago, baina batez ere erdal kazetaritza... Nola irautli egoera?

Ez dugu erraza, eta kezkatzen nauen gai bat da. Gainera, euskaldun anitz ez dira euskal kulturaren bezero. Ez dira irakurleak. Eta hori da egun dugun arazo nagusia. Sortzaileak daude, eta euskaraz produzitzen da. Beste aldean, ordea, ez dago jende askorik. Egiturazko ahulezia da. Alde horretatik badago zeregina, eta ez dago dena politikarien esku. Guk aunitz egin dezakegu. Tresna guztiak ez ditugu erabiltzen.

Garairik onenean, garaia ez dira onak?

Ekoizpenaren sektorea sendo dago, baina oraindik falta zaigu produkzio hori bereganatu behar lukeen jendea. Euskal produktuak daude, baina falta dira kontsumitzaileak. Urtero etortzen dira berri onak, eta belaunaldi aldaketa dago, baina ahalegintxo egin behar dugu euskal kulturaren biziberritzeari dagokionez.

Erresuma eta Fedea trilogia amaitu zenuen orain dela bi urte. Zerbait duzu esku artean?

Trilogia horrek ahitua utzi ninduen alde guztietatik. Hamar urte egon nintzen gai berarekin. Orain, narrazio laburren bilduma bat prestatzen ari naiz, gaur egungo testuinguruan kokatua. Aurreko lanaren kontrakoa. Patxadaz hartu nahi dut.